

La Salle Mintegiak, Tailerrak eta Proiektuak gure oinarri pedagogikoetan sustraiturik dauden eta ikasketa kooperatiboa, sormena zein ikuskera solidarioa bateratzen duten Hezkuntza integralaren baitan dagoen proposamena eta apustua dira.

Heziketa proposamen honek indartzen du:



La Salle Heziketa proiektuaren inguruan, zein Hara, Ulises, Irati, Optimis, Ikasketa kooperatiboa, Irakurketa eraginkorra eta Crea La Salle programei buruz, edota Ikaskuntza Testuinguru berriaz (ITB) zerbait gehiago jakin nahi izatera, jo ezbaierik gabe gure La Salle ikastetxeetako web-gunera lasalleikastetxeak.org edo erabil ezazu ondorengo QRa.



Ikaskuntza Testuinguru Berria

Hezteko eta ikasteko modu berri bat egia bihurtzen.



Hezkuntzak La Sallen aldatzen ari den mundu bati egokitzen badaki eta Ikaskuntza Testuinguru Berria (ITB) errealitate bihurtzen duen material berritzaileen proposamena egiten digu. Pertsona erdigunean jarriz, ikasleen dohainak garatzen dituen pedagogia berritzailea da hau, era honetan, ikasleak euren etorkizuna arrakastaz eraikitzeko ahalduz dituelarik.



MINTEGIAK

Ikaslea ezagutzarekin modu ezberdin eta sortzaile batean bat egitea ahalbideratzen dute Gizarte Zientzietako, Natur Zientzietako eta Ingeleseko mintegi koadernoek.

LA 1



LA 2



LA 3



PROIEKTUAK

Banakako zein taldekako lan koadernoetan oinarrituz, berariaz sortutako La Salle proiektuei esker ikasleek barneratu dituzten ezagutzak modu praktiko eta diziplinartekoan ezartzen ikasten dute aurkezten zaizkien erronkei erantzuna emanez.



TAILERRAK

Eginez ikasten dugulako, Gorputz Hezkuntzako, Plastikako eta Musikako La Salle tailerrekin norbanakoaren eraikuntzan protagonista bihurtzen dira ikasleak, euren dohainen bilaketan, esperimintatuz eta egiazko munduaren arazoei erantzuna emanez.

